

# Prensako kazetaritzatik edizio digitaleko kazetaritzara: pozak, ajeak eta galderak

(From the press journalist to the digital edition journalist: joys, restlessness and questions)

Eskisabel Larrañaga, Idurre

BERRIA. Martin Ugalde kultur parkea. 20140 Andoain

BIBLID [1137-4462 (2005), 11; 313-318]

Jaso: 04.06.10

Onartu: 04.07.22

---

*Internetek eta komunikabide klasikoen sareko edizioek berritasun eta aukera handiak ekarri dituzte komunikazioaren alorrera, eta, halaber, kazetaritza egiteko modura. Euskarriak berak aukera handiak ematen ditu eduki multzo itzela zabaltzeko, eta, gainera, lehenago hartzaile pasibo zena aktibo bihurtzeko. Baina guztia ez da jai; arazo eta erronka handiak daude oraindik erantzuteko: hala nola, errentagritasun ezaren aitzakian inbertsio falta eta lengoia berriak moldatu beharra.*

*Giltza-Hitzak: Internet. Kazetaritza. Komunikazioa.*

*Internet y las ediciones en red de los medios de comunicación clásicos aportan grandes novedades y oportunidades al campo de la comunicación, e incluso al modo de hacer periodismo. El propio soporte ofrece grandes oportunidades de difusión para un gran número de contenidos, y, también, para convertir en activo el que antes era un mero receptor pasivo. Pero no todo es positivo; todavía hay grandes retos a los que responder: tales como la falta de inversión con la excusa de la falta de rentabilidad y la necesidad de habilitar nuevos lenguajes.*

*Palabras Clave: Internet. Periodismo. Comunicación.*

*Internet et les éditions sur réseau des moyens de communication classiques apportent de grandes nouveautés et de grandes possibilités au domaine de la communication, y compris à la façon de faire du journalisme. Le support lui-même offre de grandes possibilités de diffusion pour un grand nombre de contenus et, également, pour convertir en actif ce qui avant n'était qu'un simple récepteur passif. Mais tout n'est pas positif; il y a encore de grands défis auxquels il faut répondre, tels que le manque d'investissement avec l'excuse du manque de rentabilité et le besoin d'habiliter de nouveaux langages.*

*Mots Clés: Internet. Journalisme. Communication.*

Hamahiru urte egin ditut kazetaritzan lanean; horietatik hamabi, 1991 hasieratik iazko otsailera prentsa idatzian, paper euskarrian, *Euskaldunon Egunkaria* kazetan. Hain justu, bidegabekeria handi bat eginez, berripaper hura itxi egin zuten 2003ko otsailaren 19an, eta, nolabait, harekin batera amaitu zen nire papereko jarduna. *Berría* egunkaria sortu zen gero, eta kazeta hasi berrian edizio digitalaren ardura hartzea proposatu zidaten. Bi bider pentsatu gabe eman nuen baiezkhoa, ziur aski, berritasunak, beste bide bat ezagutzeko paradak erakarrita. Iazko ekainaren 21ean abiatu zen *Berría* eta harekin batera nire lan berria. Beraz, hamaika hilabetekoa baino ez da kazetari digital gisa daukadan esperientzia eta inola ere ez naiz aditua. Ondorioz, trantsizio horretan izan ditudan esperientzien, sumatu ditudan aldaketen eta sortu zaizkidan kezken berri emanez egin ahal izango dut jardunaldi hauetan nire ekarpen apala.

Funtsean, aitortu behar dut aldaketa handia izan dela niretzat bilakera hori; akaso, pentsa dezakezue, euskarriaren ezaugarriengatik tresna teknologiko berriak erabili beharrak sortu dizkidala arazo gehien; baina ez da hala izan. Ez dut esango arlo horretan dena zelai izan denik, baina arazo gehiago sortu dizkit eguneroko jardunean –eta sortzen dizkit oraindik–, euskarriaren aukera ikaragarriak errazten duten komunikazio ahalmena nola kudeatu behar den erabakitzeak. Hots, edizio digitaleko edukiak, informazioak, nola transmititu behar diren asmatzeak; komunikazio eredia zein den zedarritzeak.

## **PRENTSA, SAKONTASUNAREN ERRONKA**

Izan ere, gogoratzen dut, fakultate honetan estudiatzen nuenean, komunikazioaren teoria-eta aztertzen genuenean, azaltzen zigutela euskarri komunikatibo handi bakoitzak bazituela bere ezaugarriak. Hala, irratitari ezaugarri batzuk lotzen zitzaizkion, telebistari beste batzuk eta prentsari beste batzuk. Kazetaritzako nire jarduna praktikara atxikia egon da beti, eta, beraz, ez dut teorietan gehiegi sakondu, baina gutxi gorabehera, eta dezente orokortuz, honakoa zen egiten zen saikalpenetako bat:

- Irratiari, bat-batekotasuna aitortzen zitzaion. Gertakariak, albisteak, jazo eta berehala emateko gaitasuna.
- Telebistari, berriz, bat-batekotasuna (irratiaarena baino murriztagoa, hala ere), eta ikusgarritasunaren gehigarria.
- Prentsa idatziak, egunkariak, ostera, ezin zuten beste bi euskarriekin bat-batekotasunean lehiatu. Ordea, sakontasunaren ezaugarria aitortzen zitzaion; gertakari hutsean geratzen haratago, esplikazioan, informazio oso-agoan sakontzeko gaitasuna. Nolabait, albistearen bigarren irakurketa egiteko aukera.

Hain justu, prentsan lanean hasi nintzenean horixe zen erronka; erronka eta mamua. Fakultate beretik hasita behin baino gehiagotan entzun nituen prentsa idatziari buruzko mezu apokaliptikoak: irratiarekin eta telebistarekin lehian ez

zuela asko iraungo eta horrelakoak. Eta iraungo bazuen, eskaintzen zuen informazioak balio gehigarri bat izan behar zuela: hau da, lehen aipatu dudan sakontasuna, balio esplikatioa, izan behar zuela.

Erredakzioan norabide berriak argitzeko-eta aldiro-aldiro egiten ziren hausnarketan horixe izaten zen behin eta berriz ondorioa: balio erantsi horren bila jardun behar genuela, gaiak sakontzen, kontrastatzen eta albisteari buruzko ikuspuntu osotuak eskaintzen.

Beti bezala, beste kontu bat da lortzen zenetz; bai gure egunkarian, bai besietan. Hasierako garaietan, esate baterako, baliabide teknologikoen mugek eta haren ondoriozko lan egiteko moduak dezente zailtzen zuten sakontzeko premisa hura: orrien maketazioa kazetarien eskuetatik kanpo geratzen zen, eta ez zuten argitaratuko zenaren erabateko kontrolik —horrek, idazteko modua bera dezente behartzen zuen—. Horrez gain, bi bide nagusi zeuden informazioa jasotzeko: edo zuzenean iturrietatik —zela haiengana norberak joz, zela prentsaurrekoen edo prentsa oharren bidez, zela gertakarien jarraipena eginez—, edo bestela, informazio agentzia handien bidez.

Ez dakit data zehatza zein den, baina, esango nuke, gure inguruan 1992tik aurrera hasi zirela informazio teknologia berriak hedatzen, eta iragan hamarkadako erdialdera errotu zirela erabat: hots, kazetariak eurek maketa zezaten autoedizio programak sustraitzen hasi ziren, eta halaber, Internetek iraultza handia ekarri zuen informazioa lortzeko bideak guztiz zabaldu zituelako. Sareak zein posta elektronikoak iturri ugariatik informazioa oso azkar jasotzeko aukera zabaldu zuten. Funtsean, agentzia handiekiko morrontza murriztu zen, eta, halaber, kazetariak argitaratuko zenarekiko, azken produktuarekiko, zuen kontrola asko handitu zen. Diseinu aldaketak erraztu zituen, kazetak ikusgarriagoak egiteko modua...

Esan dut, Internetek iraultza handia ekarri zuela gure lanera sasoi hartan. Baina, oraindik lan tresna zen, eta ez lan eremu.

Hurrengo urratsa lan eremu bihurtu denean etorri da, beraz, eta horrekin batera sortu zaizkit lehen aipatutako kezka eta zalantzak, esan bezala, batik bat, komunikatzeko ereduari buruzkoak, informazioa antolatzeke eta emateko moduari buruzkoak.

## **INTERNETEKO EDIZIOAK, EREDU KLASIKOEN APURKETA**

Zergatik? Laburbilduz, lehen aipatu dudan medioen sailkapena Interneteko edizio digitaletan apurtu egiten dutelako; eremu berri bat irekitzen dutelako.

Izan ere, irratia eta telebista bezain bat-batekoak izan daitezke edizio digitalak, baina, era berean, informazioa metatzeko aukera ikaragarria ematen du Internetek, besteak beste, hipertestuaren bidez, eta, ondorioz, prentsak adina —edo hagitzez gehiago— sakontzeko aukera ematen du. Nago, gainera, piskana-ka, telebistaren ikusgarritasun ezaugarria ere bereganatuko duela.

Bat-batekotasunari dagokionez, gainera, irrtiak eta telebistak ez duten abantaila dauka: erabiltzaileak erabakitzen du momentua. Hots, irrtian nahiz telebistan informazio jakin batek une jakin bat dauka; normalean, albistegieri edo saio zehatzei lotua. Dimentsio bereziko gertakariak direnean, berriz, gerta daiteke albistegietatik edo informazio saio berezietatik kanpo ematea albistea, bat-batekotasunari men eginez. Baina era batera edo bestera, une zehatz bati lotuta dago. Eta erabiltzaileak une zehatz hori harrapatu behar du informazio zehatz horretaz jabetzeko. Ordu edo momentu zehatz batzuen zelatan egon behar du.

Edizio digitalekin ez da hori gertatzen: bat-batekoa izan arren, eta albisteei dagokienez unean uneko aldaketak jaso arren, informazioa metatzeko ezaugarri hori dela-eta, hor geratzen dira erabiltzaileak jaso nahi duenerako. Erabiltzaileak erabakitzen du, beraz, momentua.

Beraz, itzeleko posibilitateak ematen ditu. Erabiltzailearentzat abantaila handiak.

Nolanahi ere, ezin da ukatu oraindik ere idatziz ematen dela edizio digitalean informazio kopuru handiena, eta ordenagailu pantailak ez direla irakurtzeko batere erosoak. Halaber, edizio digitalak segitzeko Internetera lotuta dagoen ordenagailu bat eduki behar da, eta oraindik ere ez da masiboki iritsi jendearengana, eta ordenagailu portableak ugaritzen eta hobetzen ari diren arren, oraindik ere, kasu gehienetan, leku fisiko jakin bat eskatzen du edizio digitalak erabiltzeko.

Horretan leudeke desabantailak, baina balantzan jarrita, esango nuke erabiltzailearen ikuspuntutik gehiago direla abantailak eragozpenak baino.

## **EUSKARRI BERRIA, ARAZO BERRIAK**

Baina zer gertatzen da euskarri digitalean dabilen kazetariarekin? Zer nagusitzen zaizkio abantailak edo desabantailak? Ez daukat alde baterako edo besterako erantzunik. Esango nuke, arazo berriak sortzen zaizkiola, edozein arlotan eremu berri batean murgiltzen den edonori bezala. Nolanahi ere, hiru puntutan laburbilduko nituzke zailtasun nagusiak.

1) Edizio digitalek ez dute zuzeneko irabazirik ematen. Gure inguruan kasu bakan batzuetan izan ezik —*Diario de Navarra*, adibidez— doakoak dira edizio digitalak. Beraz, ez dago produktuaren salmenta zuzenaren bidezko irabazirik. Edizio digitalean publizitzeko ohitura ere piskanaka ari da errotzen; sarrerak eta gastuak berdintzeko adina ematen badu publizitateak nahiko. Nekeza da irabazia sortzea. Azken batean, irudi aldetiko apostuak dira edizio digitalak enpresa periodistikoentzako, batik bat, prentsa idatzirako: erakuslehiak. Litekeena da norbaitek egunkari jakin baten edizio digitala ezagutzeko, egokia iruditzea, eta, ondorioz, hurrengo batean, kioskoan egunkari bat erostera doanean berripaper horren aldeko hautua egitea. Osagarri bat dira.

Beraz, zuzeneko irabazirik ematen ez dutenez, enpresa periodistikoek ez dute inbertsio handirik egiten edizio digitaletan. Erredakzio txikiak antolatzen dira: jende gutxirekin informazio esparru handi bat jorratzeko bidea aukeratzen dute. Ildo horretatik, prentsa idatzian nik ezagutu dudan joera beti izan da kazetari espezializatua bultzatzekoa. Kazetariei arlo eta gai zehatz batzuk eman eta haietan sakon dezaten eskatzea.

Alderantziz gertatzen da edizio digitaletan: kazetari espezializatua barik kazetari orojakilea bultzatzen da, politika gaiez, kirolez, kulturaz, nazioartekoaz, ekonomiaz... edozeri buruzko informazioa landuko duena. Aktualitate osoaren ezagutza eskatzen zaio.

Horrekin lotuta, beste lan bat ere ematen zaio lehenago berak egiten ez zue-na: berak izan behar du erredakzio txiki horretako dokumentalista. Euskarriaren ezaugarriengatik edizio digitaletan berebiziko garrantzia du dokumentazioaren arloak, albiste jakin bat osatzeko lotura zein testuak gaineratzeak, eta horretaz ere kazetariak arduratu behar du.

2) Irratiak, telebistak zein prentsak urteetako jardunaren bidez eginak eta trinkotuak dituzte beren komunikazio ereduak, lengoaiak, komunikatzeko kodeak —idatziakoak, ahozkoak zein irudi bidezkoak—. Interneteko edizioek, ordea, ez. Euskarri klasikoan zeuzkaten ezaugarriak batzen dituzenez, badu euskarri horrek beste hiru kodeekin zerikusirik, baina gero eta argiago daukat hori ez dela nahikoa, baizik eta berea, propioa eskatzen duela. Egin eta finkatu gabe dago oraindik.

Beraz, hortik sortzen da nire galdera nagusia: nola komunikatu behar da Internet bidez? Oraingoan, prentsa idatziaren eredura makurtu dira, batik bat, edizio digitalak. Idatzizko testuan oinarritzen da, batez ere, ematen den informazioa. Baina esaten da euskarri multimedial dela, hots, irudia eta soinua emateko gaitasua duela. Ondorioz, nola uztartu behar dira horiek guztiak? Nola bateratu bat-batekotasuna eta dokumentazio zabala emateko ahalmena, batetik, eta hori guztia gauzatzeko testua, irudia, zein soinua erabiltzeko gaitasuna bestetik? Kazetari multimedia —hots, idatzen dakiena ez ezik, irudia zein audioa editatzen dakiena— behar al da? (Editatzen diodanean ez dut esan nahi irudiak eta soin-uak sarean jartzeko teknologia erabiltzen dakiena, baizik eta, areago, irudia eta soinua komunikaziorako behar bezala tratatzen dakiena. Hagitzetan, nahastu egiten dira inola ere maila berekoak ez diren bi gaitasunak).

Hala ere, esan dugu egun, oraindik, prentsara hurbiltzen direla gehien edizio digitalak. Hots, testu idatzia da komunikazio tresna nagusia. Eta horri buruz ere sortzen da galdera: nola idatzi behar da Interneten? Joera orokorrenekin bat eginenez, idatzeko moldean ere prentsa idatziko eredura hurbiltzen da. Gehinetan, prentsako albisteen laburpen modukoak dira edizio digitaletako informazioak. Baina eredu horren egokitasuna zalantzakoa da, besteak beste, lehen esan bezala, ordenagailu pantailan irakurtzea deserosoa eta pisua delako oraindik. Ildo horretatik, irratiko hizkuntzara hurbiltzea da beste joera bat: laburrago eta zehatzago izatea. Baina irratiko hizkuntzak berea du ahozketasuna, eta bereak

ditu ahozkotasanak berezko dituen inflexio eta ñabardurak, idatziz laburrean jartzeko hain zail direnak. Dena den, Iban Aranzabalek zein Joxe Arantzabalek egunotan sustatu.com-en plazaratu duten gogoetekin bat nator, eta iruditzen zait idazteko moduak laburra, zehatza argia izan behar duela oso, ia-ia, eskemaren tankerara bilduz.

3) Aurreko biekin lotuta dago hirugarren arazoa, eta, halaber, mahainguru honetan azpimarratu den gaietako batekin: horri guztiari aurre egiteko nolako formazioa behar du edizio digitaleko kazetariak? Enpresa periodistikoek inbertsioak laburtzeko gogo horretan beren gain utziko al dituzte diseinu eta programazio arloak? Azkenean, erredakzio multimendiak eratuko al dira non kazetari batek informazio bat euskarri desberdinetarako jorratuko duen? Honetan ere, ez daukat erantzun zuzenik, baina hitzaldi hau zuei, formazio aroan zaudeten etorkizuneko kazetariei zuzenduta dagoenez, nik nire esperientziak aholkatuko nizueke arlo edo euskarri batean espezializatzen baina gehiago formazio orokor bat izatera bideratzeko zeuon burua. Munduan zein zeuon inguru hurbilenean gertatzen den guztia begi, belarri, eta, batik bat, buru irekiz jarraitzea dela oinarritzkoena. Eduki zehatzez osatutako zaku bat barneratzea baino munduarenganako jakinminezko jarrera bat izatea garrantzitsuagoa baita. Eta unibertsiatari ere horixe eskatuko nioke, asma dezala zuotako bakoitzarengan jarrera hori sustatzen. Jarrera hori izanez gero, euskarri batek edo besteak eskatzen dituen eza-gutza teknologikoetatik jabetzea —gainera, gero eta bizkorrago iraungitzen dira— ez da hain zaila izango.

Ikusten duzuen bezala, galdera asko eta erantzun gutxi. Irudipena daukat komunikazioaren arloan iraultza baten hasieran baino ez gaudela, eta guri, kazetari gisa zuzen-zuzenean eragingo digula. Hor daukagu erronka guztiek: bai komunikabideek, bai kazetariak, bai herritarrek. Kontuan hartu behar baita komunikazioaren iraultza horretan, segur aski, herritarrek, jendeak, elkar-ekintza hain handia denez, inoiz baino zeresan handiagoa dutela, eta inoiz baino eskurago dutela produktu informatiboak eta iturriak aukeratzea.

Beraz, guztioi, animo.